


# Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Foru Araua



**Erraz irakurtzeko** edizioa

Koordinazioa: Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearen  
Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia, eta  
Emplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Berdintasuna  
Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Irakurketa errazerako egokitzapena:

Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalitzen du

Lehenengo edizioa: 2020ko martxoa

© Bizkaiko Foru Aldundia- Diputación Foral de Bizkaia  
[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

© Ilustrazioenak: M.Corretge

Lege-gordailua: BI -401-2020


# Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Foru Araua



**Erraz irakurtzeko** edizioa

## **SARRERA: Hitzaurrea eta atariko titulua** ..... 5

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: legeria eta errealitatea
- Zergatik egin dugu arau hau?
- Nola egin dugu?: herritarren parte-hartzea
- Nork bete behar du?
- Printzipio orokorrak



## **1. TITULUA** ..... 10

### **1. Eskumenak eta eginkizunak**

### **2. BFAren antolaketa**

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
- BFAko sail bakoitzean arlo honetako eskumena duten unitateak
- Koordinazio-egiturak:  
sailen artekoak eta sail bakoitzaren barrukoak
- Partaidetzarako eta lankidetzarako egiturak

### **3. Finantzaketa**



## **2. TITULUA: Neurriak** ..... 20

- Organo eskuduna
- Plangintza eta ebaluazioa
- Ordezkaritza eta parte-hartzea
- Informazioa eta komunikazioa
- Azterlan eta estatistikak
- Arauak
- Aurrekontuaren plangintza eta kudeaketa
- Langileen kudeaketa
- Kontratuak, diru-laguntzak eta lankidetzaz hitzarmenak



## **3. TITULUA: Berdintasuna foru-sektore publikoaren lan arloetatik ikusita** ..... 27

- Garapen kulturala
- Garapen soziala
- Indarkeria matxista
- Garapen ekonomikoa
- Ingurumen-garapena



## **4. TITULUA: Bermeak** ..... 30



Irakurtzen ari zaren dokumentu hau Bizkaiko Batzar Nagusiek onetsiriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arauaren bertsio bat da, «irakurketa erraza» deritzon moldean egina.

Araua 2018ko uztailaren 14an jarri zen indarrean.

Araua balioen aldaketaren aldeko apustu bat da, erakundearen barruan berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko. Molde irakurterrazera egokitu da, herritar guztiek irakurri ahal izateko.

## • Emakumeen eta gizonen berdintasuna: Legeria eta errealitatea



### Legearen aurreko berdintasun formala

Berdintasuna giza eskubideen eta demokraziako bizitzaren oinarritzko printzipioa da.

Pertsona guzti-guztien eskubide bat da, pertsonen arteko desberdintasunak gainditzen dituen.


Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta **sexu-diskriminaziorik** ezaren printzipioa printzipio juridiko bat da, bai eta maila guztietako lege eta arauetan onartutako eskubide bat ere: nazioartean, Europar Batasunean, estatuan, autonomian, foru-mailan, udalean.

**Sexu-diskriminazioa:**  
Pertsona bati beste bati baino tratu txarragoa ematea haren sexua dela eta.

Gaur egun, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko arau ugari daude, baina oraindik ere ez da lortu berdintasun hori erreala izatea.

Emakumeek egoera bidegabeak bizi behar izaten dituzte emakume izateagatik.

Azken hamarkadetan, bide luzea egin du mugimendu feministek berdintasunaren alde eginiko borroka, bai eta haren onarpen legalak ere.






## Desberdintasunak oraindik dirau errealitatean

Mugimendu feministen eta hainbat emakume anonimoren lanari esker arauetan aurrera egin bada ere eta gizartean aldaketak gertatu badira ere, desberdintasun-egoerek oraindik diraute.

- Botere-egituretan eta arlo ekonomikoan: emakumeen pobrezia, **langabezia-tasa, soldata-arrakala...**
- Gizartean: matxismoa, emakumeen kosifikazioa, diskriminazio anitza,
- **Indarkeria matxista.**



### **Soldata-arrakala:**

Emakume eta gizonen arteko batezbesteko ordainketa diferentzia.

### **Kosifikazioa:**

Emakumeak edo haien irudia erabiltzea emakume gisa edo gizaki gisa duintzen ez duten helburuetarako.

### **Askotariko**

#### **diskriminazioa:**

Genero-diskriminazioa beste diskriminazio batzuekin batera (kulturala, etnikoa, ekonomikoa...) gertatzen denean.

### **Indarkeria matxista:**

Emakume batek emakume izateagatik gizon batengandik jasotzen duen indarkeria fisikoa edo emozionala. Emakumeek bizi duten desberdintasun egoeraren adierazpen muturrekoena da.



## • Zergatik egin dugu arau hau?

BFAk, berdintasunerako politikak egiteko konpromisoa duenez, xede honetarako egin du araua: emakumeen eta gizonen berdintasuna erreal eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren baldintzak bermatzeko. Foru sail guztiek beren politika, programa eta ekintzetan bete beharreko lerro batzuk ezartzen ditu arauak.

Hauek dira haren helburuak:

- Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea, pertsona guztientzako gizarte bidezko baten bermea baita.
- Emakumeen **ahalduntzea**, parte-hartze sozial eta politikoa eta autonomia bultzatzea.
- Emakumeen errealitatea publikoki ikusaraztea.
- Gizartea kontzientziaztea eta haren laguntza lortzea emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko.
- Emakumeen eta gizonen **erantzunkidetasuna** eta bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren arteko **kontziliazioa** sustatzea.

### **Ahalduntzea:**

Testuinguru honetan, emakumeek, banaka eta talde gisa, politikoki eta sozialki beren egoeraren jabe egiteko prozesua da. Kontzientzia hartzeak aukera ematen die erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze handiagoa izateko, agintera errazago sartzeko eta eragin handiagoa izateko.

### **Erantzunkidetasuna:**

Testuinguru honetan, konpromiso soziala, emakumeek eta gizonek, administrazio publikoek, enpresek eta sindikatuak hartzen dutena, arlo guztiez (erreproduktiboa eta produktiboa, etxekoa eta publikoa eta zaintza eta sostengua) neurri berean arduratzeko eta lan horiek berdin-berdin balioesteko.

### **Kontziliazioa:**

Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua familia-bizitzan eta lanean. Pertsonak beren beharrak betetzeko daukaten premia: eremu pertsonalean, familiarenean, sozialean eta laborean.

Horretarako, gizarte-antolamenduaren eredu berri bat behar da, emakumei eta gizonei behar horiek asetzen eta eremu publiko eta pribatuko erantzukizunei aurre egiten lagunduko diena..





## • Nola egin dugu araua?: Herritarren partaidetza

Arau honen helburuak lortzeko, beharrezkoa da administrazioaren eta gizartearen arteko lankidetzeta. Funtsezkoa da erakunde feministekin eta emakumeen erakundeekin komunikazioa egotea eta elkarlana egitea.

Bizkaiko herritar guztiei zabaldu zaie arau hau egiteko prozesua. Prozesu parte-hartzailea izan da, eta kontuan izan dira berdintasunaren arloko profesional eta adituek emandako informazioa, iritzia eta orientazioa. Arauaren ondoriozko foru-ekintzak abian jartzean eta haien jarraipena zein ebaluazioa egitean ere herritarren partaidetza izango du kontuan BFAk.

## • Nork bete behar du araua?

Hauei aplikatuko zaie foru araua:

- Bizkaiko **foru-sektore publikoari**.
- Bizkaiko sektore publikoarekin kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak... dituzten erakunde pribatuei.


**Foru-sektore publikoa:** BFA eta bere helburuak betetzeko sortzen dituen erakundeak.

## • Printzipio orokorrak

- Tratu-berdintasuna
- Aukera-berdintasuna
- Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea
- Genero-ikuspegiaren integrazioa
- Ekintza positiboa
- Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea
- Ordezkaritza orekatua
- Interesekzionalitatea
- Pertsonen jokabidea orientatzea.



# 1. Titulua





## 1. Eskumenak eta eginkizunak

### Zer egin dezake eta zer egin behar du BFAk emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan?

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak BFARI ematen dizkion eskumenetan oinarrituta eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzeko onetsi da foru arau hau.

Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiteko, eginkizun hauek ditu BFAk:

- Genero-ikuspegia txertatzea administrazioaren jardueran (egituretan, programetan, prozeduretan...)
- **Ekintza positiboko neurriak** hartzea.

#### **Ekintza positiboko neurriak:**


Kolektibo batzuek diskriminazioaren ondorioz bizi duten desabantaila-egoera arintzeko neurriak. Neurri horiek diskriminatutako kolektiboaren benetako berdintasuna lortu arte erabiltzen dira.

- Berdintasunaren arloko programazioa egitea bere lurralde-eremuan.
- Estatistika eguneratuak izatea eta azterlan zein ikerketak eta sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen egoeren aldeei buruz.
- Egiatzatzea ea foru arauak bete eta aplikatzen duten berdintasun-printzipioa.
- Udal eta toki-erakundeei baliabideak ematea berdintasunaren arloko programak egin ditzaten.
- Zerbitzuak ematea eta programak egitea diskriminatuta dauden emakumeek oinarrizko eskubide sozialak eskuratu ahal izateko.
- Baliabideak eta zerbitzuak ematea kontziliazioa errazteko.
- Erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean eta lankidetzan aritzea berdintasunaren arloan.
- Sexuaren araberako diskriminazio-egoerak identifikatzea eta neurriak jartzea egoerak desagerrarazteko.



## 2. BFA-ren antolaketa

Nola antolatzen da BFA emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan?






## • **Berdintasunerako Organoa**

BFAren barruko organo transbertsal bat da, zuzendaritza nagusi mailakoa, Ahalduen Nagusiaren Kabineteari atxikia.

Egitura iraunkorra izango du, bai eta bere funtzionamendurako behar dituen baliabide pertsonal eta materialak ere.

Helburu nagusia du Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzea.

Hauek dira haren eginkizunak:



- Berdintasunerako foru politikak bultzatzea, koordinatzea eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Foru sailei eta foru administrazioaren mendeko entitate eta organoei aholku ematea beren politika eta ekintzetan genero-ikuspegia txerta dezaten.
- Ekintza positiboko neurriak diseinatzea.
- Kontsultei erantzun eta irtenbidea ematea, eta txostenak egitea.
- Beste instituzio eta erakunde zibil batzuekin parte hartu eta lankidetzan aritzea.
- Bizkaiko mugimendu feministekin eta emakume-elkarteekin harreman eta lankidetzeta estua izatea.
- Emakumeen elkarten sorrera sustatzeko neurriak abiaraztea, haien ahalduntzea eta partaidetza sozio-politikoa lortzearren.
- Emakumeen ahalduntzea –batez ere gazteen eta gizarte-egoera ahulenean dauden emakumeena– sustatzeko gune eta prozesuei laguntza ematea.
- Berdintasunaren arloko toki-politikak bultzatu eta sustatzea.
- Bizkaiko udaletan berdintasunaren arloan lan egiten duten teknikarien sareko lanari laguntzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntzaren diseinua koordinatzea Aldundiaren prestakuntza-zerbitzuarekin, BFAko langileak trebatzeko.
- Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasun-egoerari buruzko azterlanak egitea.



- Herritarrak –bereziki emakume gazteak eta gizarte-egoera ahulenean daudenak— sentibilizatzea desberdintasun-egoeraz eta hartu daitezkeen neurriez.
- Arrazoi afektiboak, sexua eta generoa direla-eta bazterkeria edo gizarte— **estigmatizazioa** jasaten duten pertsonen egoera ikusaraztea eta haien parte hartzea sustatzea.

**Estigmatizazioa:** pertsona baten portaerak, bereizgarriak, ezaugarriak edo ideiek gizarteak gaitzesten duen talde batean sartzea eragiten dute; talde horretako kideak gutxiagotzat edo baztertutzat jotzen dira.

- Indarkeria matxistaren aurkako foru politika koordinatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko epaimahaietan, batzordeetan edo lantaldeetan parte hartzea.

### • **BFAko sail bakoitzean berdintasunaren arloko eskumena duten unitateak**

Sail bakoitzeko zerbitzu orokorre dagokie eskumena.

Haiek bultzatu, koordinatu eta ebaluatuko dituzte sailaren berdintasun-politikak; genero-ikuspegia txertatuko dute sailaren ekintzetan eta programetan, eta ekintza positiboko neurriak diseinatuko dituzte.

Unitatearen arduraduna izango da sailak Berdintasun Taldean izango duen ordezkaria.

Berdintasunerako Organoaren aholkularitza izango du.

## KOORDINAZIO-EGITURAK

	Zer da?	Nola sortu da?	Zer eginkizun ditu?
<b>Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako SAILEN ARTEKO BATZORDEA</b>	BFAk berdintasuna arloan egiten dituen jarduketak <b>koordinatzen ditu</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batzordeburua</li> <li>• Batzordeburuordea</li> <li>• Batzordekideak</li> <li>• Idazkaria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sailen eta Berdintasunerako Organoaren arteko interlokutore aritzea</li> <li>- Sailen eta Berdintasunerako Organoaren arteko interlokutore aritzea</li> <li>- Ekintzak proposatzea sailei</li> <li>- Lantaldeen sorrera erabakitzea</li> <li>- Baimena ematea Batzordearen bileretan adituak egon daitezen</li> <li>- Urteko txostena onestea</li> <li>- Berdintasun Taldea talde teknikoaren lana zuzendu eta ikuskatzea</li> </ul>
<b>BERDINTASUN TALDEA. Talde teknikoa</b>	<b>Laguntza eta aholkua</b> ematen dio Sailen arteko Batzordeari	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunerako Organoaren arduraduna (zuzendari nagusia)</li> <li>• Sail bakoitzean arlo honetako eskumena duen unitatearen arduraduna</li> <li>• BFAko langileen ordezkaria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azterlan, txosten eta proposamenak egitea</li> <li>- Esperientziak eta proposamenak partekatzea</li> <li>- Neurriak proposatzea</li> </ul>

<p><b>BERDINTASUN TALDEA</b> <b>Talde teknikoa</b></p>	<p><b>Laguntza eta aholkua</b> ematen dio Sailen arteko Batzordeari</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langile tekniko espezifikoak, beharrezkoa denean</li> <li>• Batzordeak izendatzen dituen adituak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sailek eginiko ekintzen eta erabilitako bitarteko eta baliabideen urteko plana egitea</li> <li>- Erakunde publiko zein pribatuekiko lankidetzak planifikatzea eta koordinatzea</li> </ul>
<p><b>SAILEN BARRUKO BATZORDEAK</b> (Sail bakoitzeko foru diputatuak eratzen ditu, foru agindu bidez)</p>	<p>Sail bakoitzeko koordinazio- eta interlokuzio-organoa da. Berdintasunaren arloko araudiaren aplikazioa koordinatzen du zuzendaritza, zerbitzu eta unitateekin batera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Koordinatzailea: Eskumena duen unitatearen arduraduna</li> <li>• Berdintasunerako Organoaren teknikariak, aholku emateko</li> <li>• Zerbitzu bakoitzeko ordezkaria (burua)</li> <li>• Beste pertsona batzuk ere izan daitezke</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sail bakoitzeko pertsonen artean interlokutere aritzea</li> <li>- Esperientziak eta proposamenak partekatzea</li> <li>- Proposamenak egitea Berdintasun Taldeari</li> <li>- Ekintzak koordinatzea eta Berdintasun Plan Foralaren jarraipena egitea sailaren barruan</li> <li>- Sailen arteko ekintzak bultzatzea</li> <li>- Berdintasunerako politiken barne-kudeaketa egitea</li> </ul>

**Egiturotan saiatuko da emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izan dadin**



**PARTAIDETZARAKO ETA LANKIDETZARAKO EGITURAK**

	Zer da?	Nola sortu da?	Zer eginkizun ditu?
<p><b>BIZKAIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LURRALDE-SAREA</b></p>	<p>BFAREN, udalen eta berdintasunaren arloan eskumena duten beste erakunde batzuen artean lana eta koordinazioa egiteko gunea</p>	<p>Sei hilabeteko prozesu parte-hartzaile bat, eginkizunak eta antolaketa jasotzen dituen erregelamendu bat ezartzeko.</p> <p>Partaideak:</p> <p>Udaletako edo udalez gaindiko ordezkari politikoak eta berdintasunerako teknikariak</p>	<p>Berdintasunerako Organoa arduratzen da sarearen koordinazioaz</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- BFAREN, udalen eta beste erakunde batzuen artean interlokutore aritzea</li> <li>- Berdintasunerako udal politikak bultzatzea, koordinatzea eta ebaluatzea</li> <li>- Lankidetzan aritzea Bizkaian berdintasuna sustatzeko dauden beste gune batzuekin</li> <li>- Berdintasunerako udal teknikarien sarea sustatzea</li> <li>- Neurri bateratuak planifikatzea eta ezartzea</li> <li>- Datu-baseak, informazioa eta metodologia komunak erabiltzea eta partekatzea</li> <li>- Parte hartzeko bideak ezartzea talde feministekin eta gizarte-erakundeekin erakundeekin.</li> </ul>

<p><b>BIZKAIKO EMAKUMEEN PARTAIDETZARAKO KONTSEILUA</b></p>	<p>Elkarte feministen, emakumeen elkarten eta beste erakunde batzuen partaidetzarako organoa.</p> <p>Elkarte-mugimendu horien arteko harremanak ezartzen ditu eta gune bat eskaintzen du gogoeta eta proposamenak egiteko.</p>	<p>Prozesu parte-hartzaile bat, eginkizunak eta antolaketa jasotzen dituen erregelamendu bat ezartzeko.</p> <p>Partaideak:</p> <p>Talde feministak eta emakumeen taldeak.</p> <p>Batzar Nagusiek hauek onetsi beharko dituzte:</p> <p>-Kontseiluaren erregelamendua</p> <p>Jardueraren urteko txostena, Berdintasunerako Organoak egin beharrekoa</p>	<p>Berdintasunerako Organoa arduratzen da Kontseiluaren koordinazioaz.</p> <p>- Mugimendu feministaren eta gizarte-erakundeen artean interlokutore aritzea</p> <p>- Taldeon partaidetza sustatzea BFAren politika publikoetan eta berdintasun-planetan.</p>
---	--	---	---



### 3. Finantzaketa


Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakunde eta organismoek urteko aurrekontuetako baliabide ekonomiko batzuk erabiliko dituzte arau honetako neurriak garatzeko.

Eta BFAko sail bakoitzak neurriak betetzeko behar diren baliabide tekniko eta pertsonalak jarriko ditu.



## 2. Titulua

# Genero-ikuspegia txertatzeko neurriak





• **Zer esan nahi du genero-ikuspegia txertatzeak?**

Politika eta ekintza guztietan emakumeen eta gizonen egoera, premiak, nahiak eta baldintzak kontuan hartzea, plangintzatik hasi eta ebaluazioa egin arte, berdintasuna sustatzeko eta aldeak ezabatzeko.


• **Zein da organo eskuduna?**

**Berdintasunerako Organoa**

Berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu eta haien jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu.

Gainera, BFAko sailak eta Bizkaiko foru-sektore publikoa arduratuko dira ekintza konkretuak programatzeaz, abiarazteaz, ebaluatzeaz eta haien jarraipena egiteaz.

• **Nola gauzatzen dira neurriak?: Berdintasunerako Foru Plana**





## • Ordezkaritza orekatua

Ordezkaritza orekatua da baldin eta emakumeek eta gizonek gutxienez ere % 40ko ordezkaritza badute.

Foru-sektore publikoan aplikatzekoa izango da batzorde, lan-mahai, epaimahai eta abarretarako titularrak izendatzen direnean.

Eta BFAk ere bete behar du ordezkaritza orekatua gobernu eratzenean diputatuak eta zuzendari nagusiak aukeratzean.

<b>Salbuespenak:</b>	
<b>Ez da ordezkaritza orekatuaren irizpidea aplikatzen</b>	
<b>Baldin eta...</b>	<b>Orduan, ...</b>
Emakumeen edo gizonen presentzia ez bada % 40ra heltzen	Bermatuko da ordezkaritza txikiena duen sexuko pertsonak egotea
Sexuen arteko aldeak zuzentzeko emakumeen presentzia % 60tik gorakoa bada	
Ez badago organoan parte hartzeko gaitasun egokia duten gizonik edo emakumerik	
Organorako izendapena karguaren arabera egiten bada	
Organoaren izendapena instituzio edo erakunde batzuen artean egiten bada	Ordezkaritza orekatua mantenduko da instituzio edo erakunde berak izendatutako pertsonen multzoan



## • Informazioa eta komunikazioa

### **Kanpokoak: herritarrentzat**

- Berdintasuna lortu eta indarkeria matxista desagerrarazi beharri buruzko sentsibilizazioa egitea.
- Berdintasunari buruzko informazioa eta edukiak sortzea teknologia berrietan eta komunikabideetan.
- Herritarrei informazioa ematea berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioez eta printzipio horiek baliatzeko eraz.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko jardunaldiak, programak, kongresuak eta ikastaroak sustatzea.

### **Barrukoa: BFAren beraren ekintzan**

BFAren sail eta erakunde guztiek hauek egin beharko dituzte beren informazio- eta komunikazio-ekintzan:

- Emakumeen eta gizonen presentzia publiko orekatua sustatzea Bizkaiko gizartearen arlo guztietan.
- Emakumeen aniztasuna (identitatea, egoerak, esperientziak...) islatzea bizitza sozialean, politikoan, kulturean, ekonomikoan...
- Berdintasun-egoerak erakustea, estereotipo eta rol sexistarik gabeak.
- Berdintasuna bermatzea emakumeek informazio idatzian, ahozko informazioan, irudietan eta abarretan duten presentzian eta eta agertzeko eran.
- Hizkera ez-sexista erabiltzea idazkietan eta irudietan. Berdintasunerako Organoak gida bat sortuko du BFAko erakunde guztietarako.
- Genero-ikuspegia txertatzea erakundearen publizitatean.

BFAren instrukzio bat egingo da era guztietako komunikazioetan berdintasuna bermatzeko: kanpokoan, barrukoan, ahozkoan, idatzian, paperean eginikoan, ikus-entzunezkoan edo digitalean, webetan, gizarte-sareetan eta publizitatean.



## • Azterlan eta estatistikak

Foru-sektore publikoak azterlan eta ikerketak egingo ditu aztertu eta jakiteko ea sexu-diskriminaziorik egiten den zerbitzu publikoak eman, eskuratu eta erabiltzean.

Horrez gainera, estatistikak eta azterlanak modu progresiboan egokituko dira araua betetzeko.

Horretarako, hauek sartuko dira:

- Sexuaren/generoaren aldagaia inkestetan, estatistiketan...
- Adierazle berriak, hobeto ezagutzeko balioen arteko desberdintasunak, egoerak, rolak, diskriminazio anitzak...
- Lagin zabalak, aldagaiok hobeto aztertu ahal izateko
- Emakumeen eta gizonen arteko aldeak ezagutzeko aukera ematen duten datuak ustiatzea
- Lehendik dauden definizioak berrikustea emakume-talde batzuen estereotipo negatiboak ezabatzeko.

## • Arauak

Foru-sektore publikoak (administrazio-organo sustatzailea) generoaren araberako eragina aztertzeke aurreko ebaluazio-txostena egin beharko du arau berri bat sortu aurretik.

Honako hauei aplikatuko zaie:

- Foru arauen proiektuei.
- Ogasun eta Finantzen foro diputatuak proposatuta presazko arrazoiak direla-eta emandakoen Foru dekretu arauemaileei.
- BFAREN foru dekretuei.
- Hautaketa-prozesuen deialdiei buruzko foru dekretuei.
- Diru-laguntzak arautzeko hitzarmenei.
- Lan arloko akordio eta hitzarmenei.





## • Aurrekontuaren plangintza eta kudeaketa

Foru-sektore publikoak genero-ikuspegia txertatuko du aurrekontuen plangintza eta kudeaketa osoan, helburu hauek lortzeko:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izan dadin.
- Baliabideak banatu, eskuratu eta esleitzean berdintasun-printzipioak bete daitezten.
- Baliabideen kudeaketa emakumeen premiei eta desberdintasun-egoerei erantzuteko egokia izan dadin.

Horretarako:

- Tresnak diseinatu, planifikatu eta egingo ditu aurrekontuekin zerikusia duen guztian berdintasuna txertatzeko.
- Aztertuko du zer eragin duten aurrekontuko partidek emakumeen eta gizonen beharrianetan, interesetan eta bizi-baldintzetan.
- Aurrekontuen jarraipena egingo du, eta ebaluatuko du ea generoari buruzko helburuak betetzen diren aurrekontu-programetan, adierazleak ezarriz eta jardunbide egokiak partekatuz.
- Aurrekontuko programak definitu eta garatzen dituzten langileak sentsibilizatzea eta prestatzea.





## • **Langileen kudeaketa**

Berdintasun-printzipioa txertatzeko, foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeek berrikusi egin beharko dute langileen arloko politika, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

- Sarbidean eta hautaketan
- Sustapenean
- Prestakuntzan
- Soldatetan
- Laneko segurtasunean eta osasunean
- Erantzunkidetasunean eta kontziliazioan
- Jarduera sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan.

## • **Kontratuak, diru-laguntzak eta lankidetzak-hitzarmenak**

BFAk eta foru-sektore publikoko erakundeek genero-ikuspegia txertatuko dute arlo hauei buruzko politiketan:

- **Kontratazio publikoan:** enpresa bat kontratatzeke orduan kontuan hartuko da enpresak uneoro berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde egiten duela.


- **Dirulaguntzetan:** dirulaguntzak emateko orduan kontuan hartuko da onuradunek uneoro berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde egiten dutela.

- **Lankidetzak-hitzarmenetan.**



## 3. Titulua

# Berdintasuna foru- sektore publikoaren lan arlotatik ikusita





BFAk hainbat eremu transbertsaletan esku hartzen du; beraz, genero-ikuspegia haren politika sektorial guztietan txertatu behar da.

## • Garapen kulturala

- **Kultura:** emakumeak ikusaraztea artearen sorkuntzan, ekoizpenean eta erakusketan.

- **Kirola:** emakumeak ikusaraztea kirol-praktikak, haien lorpenak aintzat hartuz eta berdintasunean oinarritutako eskaintza bat eginez.

## • Garapen soziala

- **Garapenerako lankidetzak:** genero-berdintasuna sustatzea nazioarteko lankidetzarako, emakumeen ahalduntzerako, partaidetzarako eta prestakuntzarako proiektuen jarduketetan.

- **Gizarte inklusiboa:** gizartea sentsibilizatzea eta neurriak ezartzea emakumeek jasaten dituzten era guztietako desberdintasun-egoerei aurre egiteko.

## • Indarkeria matxista

- **Arreta eta babesa:** Indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei laguntza eta harrera egiteko eta haiekin esku hartzeko zerbitzuak eta baliabideak.

- **Ikerketa:** politika publikoetan erantzun gabe dauden erronkak.

- **Prebentzioa eta sentsibilizazioa:** emakumeen ahalduntze kolektiboa eta kontzientzia kritikoa gizarteaz, erakundeez eta komunikabideez.

## • Ingurumen-garapena

- **Politika fiskala:** berdintasunaren aldekoa, bidezkoa eta progresiboa, kontuan hartuta zaintzen arloa, emakumeen pobrezia...

- **Enplegua:** emakumeen presentzia lan-merkatuan, enpleguaren kalitatea, kontziliazioa, arreta berezia gizartean egoera ahulenean daudenei...



- **Ingurumen-garapena**


- **Iraunkortasuna eta ingurune naturala:** emakumeen esperientzia, partaidetza eta lidergoa sustatzea ingurumeneko zerbitzuetan, nekazaritzan, abeltzaintzan...

- **Hiri-plangintza eta azpiegiturak:** genero-ikuspegia txertatzea udalerrien diseinuan, segurtasunean, hurbiltasunean, ekipamenduetan, hesietan...

- **Garraioa eta mugikortasuna:** garraio publikoaren zerbitzua egokitzea emakumeen beharrian espezifikoak kontuan hartuta (segurtasuna, guneak, ordutegiak, diseinua...)

## 4. Titulua

### Bermeak





- **Herritarrentzat**

Edozein pertsonak sala dezake baldin eta BFAk betetzen ez badu foru arau honetan ezarritakoa.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aurrean egin dezake salaketa.

Dekretu baten bidez ezarriko da nola egin salaketa.

- **BFAn**

Foru-sektore publikoko politikari eta teknikari guztiek bete beharko dute foru araua.